

TXISTUA:

Gurea eta aspaldikoa

1958. urtean azaltzen dira txistua eta Elgoibar lotzen dituzten estreinako dokumentuak.

Elgoibarko Izarran, berriz, 1965ean entzun ziren estreinako txistu-hotsak. Eta Elkartearen txistu eskolaren hasiera Antonio Azpiazu zenaren etxean kokatu behar dugu. Izan ere, Antonio zena bere etxean hasi zen txistua erakusten. Lehen ikasleak seme-alabak, ilobak eta etxe ingurukoak izan ziren. Antoniok eguerdian ematen zituen txistu eskolak. Handik irten zen Antton Azpiazuk, Iñaki Mujikak, Kurutz Castrillejok eta Jose Inazio Sarasuak osatzen zuten Gazte Alaiak txistu taldea.

1970ean, berriz, Elizak Ikastolari lagatako lokaletan hasi ziren txistu-eskolak ematen. Sasoi horretan 80-90 ikasle ere izan omen zituen Antoniok.

Txistu eskolako ikasleen lehen aktuzioa Gabon-kantuen txapelketa batean izan zen. Gerora, San Anton jaietan, Euskal Jaietan, Santa Zezilia egunean, Erregeen kabalgatan eta mezetan ere jotzen zuten txistua.

1978an, Antonio Azpiazu hil zenean, 50-60 ikasle inguru zeuden txistua ikasten, eta Antonioren semea zen Antton Azpiazuk hartu zuen haien ardura.

1984-85 ikasturteetik aurrera, berriz, txistuaren irakaskuntza Inazio Bereziartua Musika-eskolaren arduran geratu zen.

Elgoibarko Izarrako txistu eskolaren hasiera Antonio Azpiazu zenaren etxean kokatu behar dugu. Eta lehen ikasleak seme-alabak, ilobak eta etxe ingurukoak izan ziren.

ANTONIO AZPIAZU (1918-1978)

Antonio 1918an jaio zen Elgoibarren. Inazio Bereziartuarekin ikasi zuen musika, eta, koruan, hil arte jardun zuen kantuan. Udal Bandan ere jotzen zuen saxofoia. Elizako organoa jotzen zuen organista falta zenean, eta berak egiten zituen musika-arregloak umeen domeketako mezetan. Txistuarekin batera, koral, gitarra eta soinua ere irakasten zituen. Gainera, haurren danborradako bultzatzaileetako bat izan zen. Eta Antonioren semeak, Anttonek, esan digunez, dantzari bikaina ere izan zen.

Elgoibarko Izarran txistua berari esker sartu zela esan badugu ere, Anttonek zera aitortu digu: "gure aitta ez zan txistularixa, ez zan sekula txistulari moduan ibili. Aittak justu jotzen zaban txistua". Baina ez pentsa Antonioren buruan musika bakarrik zegoenik. Futbolearen jardun zuen ezkondu zen arte, eta Realarekin lehen mailan jokatu zuen. Gainera, euskaltzalea eta abertzalea ere izan zen.

Antonio gazte zela joan zen gure artetik, 60 urterekin. Azken agurra eliza umez beteta zegoela eman zioten, txistuak isilik egon baziren ere. Gerora, hil eta hiru-lau urtera, bere omenezko meza antolatu zen, txistulari eta guzti oraingoan.





1965ean hasi zen txistu hotsa Elgoibarko Izarran Antonio Azpiazurekin.



·60·

1970ean, adibidez, 80-90 ikaslek jardun zuten txistua ikasten.



Besteak beste, Euskal Jaietan eta Odeoiko jaialdian jotzen zuten txistua.